

1. konpromisoari buruzko bileraren akta. Gaia: aginte-planen bidez kontu ematea

2019ko urtarrilaren 17a

Victoria Eugenia antzokiko Klub aretoan egin da bilera, Donostian, 2019ko urtarrilaren 17an, 10:30etik 13:00era.

1. konpromisoan inskribatuta dauden 46 pertsonetatik 21 hauek bertaratu dira bilerara:

- Otaolea Velado, Maria Aranzazu, Consejo de la Mujer. Bilbao
- Andoni Lastra, Kultiba
- Leire Andion Mediavilla, Leioako Udala modernizatzeko teknikaria
- Eneko Agirre, Osoigo
- Montserrat Gutiérrez Aranbarri, Ermuko Udala
- Ibon Ramos, Donostiako Udala
- Goizalde Atxutegi, Innobasque
- Inmaculada de Miguel Herrán, Arartekoa
- Xuban Zubiria, Euskadiko Gazteen Kontseilua (EGK)
- Ugarte Aizpuru, Haritz, Gipuzkoako Foru Aldundia
- Guillermo López, Appsamblea
- Alaitz Erkoreka, Mungiako Udala
- Svet Ivantchev, Efaber
- Igotz López Torre, Zamudioko Udala
- Paul Gurmendi, Techforsociety
- José Antonio Riveiro, Erandioko Udala
- Joseba Egia, 97S&F
- Moreno Carranza, Jonatan, Bizkaiko Foru Aldundia
- Olaizola Azkarate, Jokin, Eusko Jaurlaritza
- Petrikorena Arbelaiz, Luis Maria, Eusko Jaurlaritza
- Olaizola Azkarate, Jon, Eusko Jaurlaritza

Luis Petrikorenaren azalpen labur batekin hasi da bilera. 1. konpromisoko taldekide guztiei bidali zaien dokumentuaz aritu da, *Aginte-planen bidez kontu emateari buruz eztabaidatzeko dokumentua* izenekoaz. Bertan, nazioartean kontu emateko onartuta dauden printzipio hauek jorratzen dira:

- **Inklusioa:** ahots guztiei entzutea, eragiten dieten gaietan. Politika publikoek uki ditzaketen askotariko intereseko taldeak hartzen ditu aintzat.
- **Materialtasuna:** intereseko taldeei axola zaiena ulertzeko eta artatzeko gaitasuna. Planak, ekimenak, proiektuak eta politikak jorratzen ditu, baina baita herritarrei modu aktiboan entzutea ere.
- **Erantzukizuna:** jarduera-gardentasuna, jasangarritasuna bermatzeko. Ereduaren jasangarritasunaz nahiz herritarrei egiten zaien feedbackaren kudeaketaz hitz egiten du.
- **Inpaktua:** erakundeek ekosistemari eragiten dioten erasanaren definizioa, neurketa eta jarraipena. Erakundeek beren ekintzek, erabakiek eta proiektuek ingurune hurbilenari

eragiten dioten inpaktuaren gaineko jarraipena egin behar dute, eta inpaktu hori neurtu, eta horren kontu eman.

Dokumentuan, aginte-plana edo gobernu-plana zehazteko proposamen bat eta kontu emateko eredu eraikitzeke beste proposamen bat daude jasota.

Azalpenaren ondoren, eztabaida hasi da. Lau printzipio horiek (inklusioa, materialtasuna, erantzukizuna eta inpaktua) banatu dituzten lau taldetan egin da, printzipiook aztertu eta bateratu ditzaten eta konpromisoari ekarpenak egin diezazkioten.

Talde bakoitzak egindako ekarpenak daude hemen jasota:

I) MATERIALTASUNARI buruzko eztabaida-mahaia

1. Etorbizuneko garapenak bideratu behar dituzten oinarrizko printzipiotzat hartzen dira: herritarrei begira egon behar dute, sistema ireki, konfederatu, modulagarri eta soilen bidez.
2. Aginte-plana edo gobernu-plana ekimenen gaien edo tipologiaren arabera jorratzea proposatzen da. Oinarrizko gaiak multzokatzeko lehenengo proposamena egin da. Honako hauek dira gai horiek: etxebizitza, hezkuntza, osasuna, segurtasuna, enplegua, azpiegiturak eta lurralde-antolamendua, kultura, gizarte-politikak, euskara, berdintasuna eta garapenerako lankidetzak.
3. Beharrezko ikusi da erakunde publikoek planen hedapenean erabiltzen duten terminologia bereizia bateratzea. Herritarrengandik hurbil dagoen hizkera erabiltzea ekimenak azaltzeko orduan.
4. Web-mailan egiten den edozein garapenek herritarren nabigazio-logikarekin lerrokatuta egon beharko luke, zehaztasunetik orokortasunera antolatuta, kontu hurbilenetara iristea errazteko moduan, eta, aldi berean, gainerako gaien abaniko osoa eskaini beharko luke. Ulergarritasunari eta erabilgarritasunari dagokienez, egokitzat jo da datuak bistaratze interaktiboaren bidez erakustea, irakurketa errazteko teknikei atxikitzea eta aginte-planaren unean-uneko egikaritze-fasea ezagutarazteko adierazleak erabiltzea.
5. Aginte-plana aurrekontu bati loturik egotea planteatu da, bideragarrien ikusten den mailan, bilakaera gaika ezagutzea ahalbidetzeko moduan; hobe aurrekontuaren gutzitzekoaren gaineko ehunekotan, balio absolutuetan baino. Eta jarduera aditzera emango eta hedatuko duen dokumentazio grafikoa erakustea. Egoki ikusi da egin ez denaz eta horretarako arrazoiez informatzea.
6. Web federatu bat sortzea iradoki da. Sistema ireki gisa antolatuta egongo litzateke, eta informazioa API, RSS, JSON eta abarrekin trukatzeko bateragarriak diren nodoak edukiko lituzke. Ezinbestekotzat jo da informazioa trukatzeko eta alderatzeko automatizazioa bilatzea. Horretarako, oinarrizko fitxa soil eta modulagarria adostu beharko litzateke, gutxienezko eremu komun batzuk edukiko lituzkeena, estandarizazioa eta alderaketak ahalbidetzeko.

7. Erakunde publikoetan aurrekontuak egiteko pilotu bat sortzea proposatzen da. Pilotu horrek herritarrentzako xede pedagogikoak edukiko lituzke, eta simulazio-jolas batean egongo litzateke oinarrituta, aurrekontu-partiden igoerek eta murrizketek nola eragiten duten ikus dadin, gastuak diru-sarreraren mende edo diru-sarrerek mugatuta daudela jakinda.

II) ERANTZUNKIDETASUNARI buruzko eztabaida-mahaia

1. Hiru arduradun mota: kargu hautetsiak, gobernuko karguak eta teknikariak.
2. Politikaria arduradun-profiltzat hartu da: kontu-emateak politikaria bere barrutira gehiago hurbildu dezan saiatzea.
3. Gaizki ikusi da "oposizio" profila sartzeari; ekimen ugariaren ardura eduki arren, ez dauka gobernuko eskumenik.
4. Barne-mailako ezagutza eta prestakuntza indartzea. Trebatzeko eta motibatzeko ekintzak behar dira ebaluazioaren, adierazleen eta abarren eremuetan.
5. Lineako edo plataforma digitaletako jarraipenari bide egiteko, aurrekontuak justifikatzeko aplikazioetan kontu emateko tresna txertatzea proposatzen da. Erabilera errazteko eta "nahitaezko" bihurtzeko aukeratzat hartzen da.
6. Kontu emateko arduraren arloan prestatzeko dekalogo bat egitea proposatzen da, politikarientzat eta teknikarientzat, kontu-ematearen inguruko printzipio/konpromiso politikoen adierazpen modura.
7. Prozesuaren fase guztietan indartu behar da komunikazioa; batez ere, tresna digitaletan oinarrituta.
8. Herritarren postontziak eta komunikazioa dinamizatzeko egitura:
 - a. Kontu-emateari buruzko eztabaidetan telebista publikoak edo tokikoak erabiltzea proposatzen da.
 - b. Kexa-postontzien *inputak* publiko egitea.
9. Oinarri nagusi gisa, ebaluazioaren kulturaren egitea lan, kontu behar bezala emateko behar den piezatzat hartuta hori, erakundeetan kultura aldatzeko palanka modura.

III) INPAKTUARI buruzko eztabaida-mahaia

1. Une honetan inpaktua neurtu behar den ala ez argi ez daukagula esanez hasi gara, gure ustez egindako ekintzak aurreikusitakoekin alderatzea baita kontu ematea. Horrela, kontu-ematea eta ebaluazioa bereizten ditugu: gure ustean, prozesu beraren zati dira, baina fase eta une ezberdinetan egiten dira. Prozesu horretan, kontu ematea da eman beharreko lehen urratsa.
2. Adierazleei dagokienez, zenbait adierazle sartu behar direla uste dugu. Lau adierazle mota zehaztu ditugu: (1) Testuingurua (aginte-planaren xede estrategiko handiei loturikoa. Adierazle estandarrez ari gara, "EUSTAT bezalakoez"), (2) Betetze-maila eta (3) Aurrerapena (funtsezkoa), eta (4) bestelakoak (edozein motatakoak, exekutututako aurrekontua, asebetetze-maila, inpaktua...). Adierazle horiekin, abiarazitako ekintzen xede nagusia eta ekintzokiko zer lortu nahi den zehazten da. Halaber, aurreikusi ez diren eta jada abiarazi diren ekintzak ere jaso beharko lituzkete, eta zehaztutako ekintzetatik desbideratzeko arrazoiak azaldu. Gure ustez, 1., 2. eta 3. adierazleek derrigorrezkoak

- izan beharko lukete, eta 4.ak (bestelakoak) borondatezkoa izan beharko luke, erakunde bakoitzaren ahalmenaren arabera.
3. Garrantzitsua da adierazle eta ekintza bakoitzaren esanahia hasieratik bertatik eta zehatz-mehatz zehaztea, benetako jarraipena egin nahi badugu. Definizio horiekin batera, proiektu bat garapenaren % Xn dagoela baieztatzeko zein mugarri egin behar diren finkatuko da. Gardentasunez egin behar da hori, legitimitate handiagoa izateko. Kontuan hartu behar da ekintza-tipologia bakoitzak aurrerapenaren eta betetze-mailaren inguruko adierazle mota jakin batzuetara eraman gaitzakeela (ez da gauza bera azpiegitura bat egitea edo zerbitzu bat abiaraztea)
 4. Informazioa bistaratzeko orduan, hizkuntza teknikoa eta informazio horrekin egiten den kontakizuna bereizten dira. Lehenengo geruzan, informazioak ulergarria izan behar du herritarrentzat; bigarrenengan, berriz, datu mota horien ulermenean eskarmentu handiagoa dutenak dira xede. Kontuan hartu behar da informazioaren hartzaileen artean askotariko interesak dauzkaten askotariko pertsonak daudela; informazioak irisgarria izan behar du desgaitasunen bat duten pertsonentzat. Interesgarria litzateke irakurketa errazeko testuen alde egitea. Gutxienez, proiektu bakoitzari buruzko bi informazio eman beharko dira: egoera (abandonatuta, diseinatzen, ezartzen, amaituta...) eta betetze- nahiz aurrerapen-maila kuantitatiboa.
 5. Gure ustean, bistaratzean, ekintza bakoitzean erabiltzen eta bideratzen den aurrekontua eta politiken garapen-maila egiaztatzen duten ebidentziak ere sartu beharko lirateke. Gure ustez, ebidentziak oso garrantzitsuak dira, edozelakoak izanda ere (proiektuen argazkiak, bideoak, sortutako araudirako sarbidea...). Bistaratzeko hori urtean behin eguneratu beharko da gutxienez, administrazio bakoitzaren baliabideen arabera, eta, legegintzaldiaren amaieran, hedapen-ekintza parte-hartzaileago eta presentzialagoekin osatu ahalko da.
 6. Garapen jasangarrirako xedeei eta nazioarteko politikekin lerrotzeko dagokienez, gure iritziz, a posteriori egin beharko litzateke, egitura zehaztuta edukitakoan, diseinua ez baldintzatze aldera, eta, ondoren, garapen jasangarrirako xederen batekin lerroka daiteke ekintza bakoitza. Planaren zati izan daiteke, baina ezin dezake zati garrantzitsuegirik hartu.

IV) INKLUSIOARI buruzko eztabaida-mahaia

1. Ahal dela, eraginkorragoa da inklusioa gobernu-plana edo -programa egin aurretiko hausnarketa-fasetik sustatzea.
2. Adierazi denez, garrantzitsua da konfiantza edukitzea askotariko gizarte-taldean interesak biltzen dituzten elkarteekiko harremanaren kudeaketan. Gure ustez, horixe da lehenengo oinarria.
3. Prozesuen iraupenari buruzko iruzkin orokorra:
 - a. Denbora nahikoaz informatzea kontuak berrikusteko prozesuan parte hartzeko dauden askotariko aukeren inguruan.
 - b. Ohitura positiboak sortzea parte hartzeko orduan.
 - c. Elkarteetan eta administrazioaren artean dauden abiadura eta erritmo ezberdinak ulertzea. Baita antolatu gabeko herritarren eta administrazioaren artean dauden erritmo ezberdinak ulertzea ere.
4. Barne-bezero deritzogunaren inplikazioa areagotzea (batez ere, teknikariena eta funtzionarioena).

5. Inplikaziorako eta komunikaziorako bideak eta kanalak:
- a. Asebetetze-inkestak, kontu-emateari buruzko galderak eta datuak sartuta.
 - b. Zerbitzuak ematean dauden harreman-guneak baliatzea (instalazioak, arreta-bulegoak eta abar).
 - c. Xede den jendeari egokitzea askotariko informazio-mailak.
 - d. Herritarren postontzia, app-ak, webak. (Txileko agenda digitala aipatu da adibide modura).
 - e. Komunikazioa errazteko, Euskadin kontu emateko marka edo bereizgarri bat sortzea eta administrazio edo erakunde bakoitzak –marka independenteak erabiltzean– komunikazio horren emaitzak lausotzea saihestea.
 - f. Ezinbesteko bitartekoak aipatu dira: weba, eskuliburuak/kartelak eta kontu emateko bilerak edo foroak.
 - g. Beharrezkoak dira hedapenerako erabili ohi diren gainerako bitartekoak: WhatsApp, app-ak, sare sozialetako profilak, e-mailing, aldizkariak, postontziak eta abar.

Bilerara bertara ezin izan zirenek beren ekarpenak egin ahal izan ditzaten eta bertaratu zirenek iruzkinak osatu edo iruzkin berriak egin ahal izan ditzaten, eranskin batean erantsi ditugu lehen aipaturiko printzipio bakoitzaren lan-fitxak, garbi, horiek edukitzea errazteko eta postaz jon-olaizola@euskadi.eus helbidera bidali ahal izateko.

Dena dela, ekarpenak laster argitaratuko dira <http://www.ogp.euskadi.eus> webean, ideia eta iruzkin berriak jaso ahal izan daitezen.

ERANSKINA

Proposamenen xede izan daitezkeen lau printzipio:	MATERIALTASUNA
<ul style="list-style-type: none">• MATERIALTASUNA, zeren inguruan eman kontu:• testu politikoa, aginte-konpromisoak.• Ekimen zehatzak, planak, xedeak eta abar.• Nola antolatzen diren...• Esleitutako aurrekontuak, ahaleginak lehenestea, aurrekontua exekutatzea.• Planaren betetze-mailaren adierazleak, adierazle orokorrak.	

Proposamenen xede izan daitezkeen lau printzipio:	ERANTZUKIZUNA
<ul style="list-style-type: none">• ERANTZUKIZUNA, nork eta nola ematen duen kontu:• Prestakuntza/motibazioa kargu publikoei. Modu digitalean pentsatzen hastea, lehentasunez:• Prestakuntza erakundeari. Komunikaziorako eta lineako harremanetarako tresnak, mobile...• Herritarren postontziak / Honesty box karguetarako	

Proposamenen xede izan daitezkeen lau printzipio:	INPAKTUA
<ul style="list-style-type: none"> • INPAKTUA, nola neurtzen dugun: • Adierazleak. Gutxi, soilak. Infoxikazioa. • Bistaratzekak. • Garapen iraunkorrerako xedeak. Nazioarteko joera politikak lerrokatzeari dagokionez. • Kontu-ematea eta ebaluazioa bereiztea. 	

Proposamenen xede izan daitezkeen lau printzipio:	INKLUSIOA
<ul style="list-style-type: none"> • INKLUSIOA, iritzi bat duenari entzutea. • Intereseko taldeak / Antolatu gabeko herritarrak. • Generoari, adinari eta abarri buruzko ikuspuntuak jasotzea. • Postontziak, entzuteko bilerak (Topaketak), web eta profil gero eta interaktiboagoak. • Parte hartzeko eta inplikatzeko prozesua, gizarteari entzuteko. 	